



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de  
Universidades e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

**EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 28koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2020-2021 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzabeka eskaeren ebazpena ematen du, B modalitateari dagokionean.**

Hezkuntza sailburuak, 2020ko irailaren 15eko aginduaren bitartez (irailaren 25eko EHAAn argitaratua), 2020-2021 ikasturterako Ikasiker lankidetzabeken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat. Agindu horren oinarriak, 3.2 artikuluan, bekaren B Modalitatea jasotzen du: lankidetzabeka udan zehar egiteko, alegia, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko irailaren 30era.

Hautaketa-batzordeak, 2020ko abenduaren 30ean, Ikasiker lankidetzabekarako A eta B modalitatean aurkeztutako eskaeren ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 30.000 euro, B Modalitatean (Eranskina I).

**Bigarrena:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (Eranskina II).

**Hirugarrena:** Interesatuak, gorako errekurtsua jarri ahal izango dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 28a.

Miren Artaraz Miñón  
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA